

BALIO PROPOSAMENA

Gure **lehiakideekiko desberdintasunak** nabarmenak izango dira. Euskadin ez dago kirol-errendimendua hobetzen espezializatutako zentrorik. Hirian zehar dauden talde amateurak dira antzekoenak. Orduan, gure **helburua** izango da pertsona horiek erakartzea, haien trebetasunak hobetu ahal izan ditzaten. Izen hauek ditugu pentsatuta: Gaizka Toquero (Futbola), Juanma Iturriaga (Saskibaloia), Almudena Cid (Gimnasia erritmikoa) eta Jon García Ariño (Padel). Laburbilduz, eskaria eskaintza baino handiagoa da.

Gure **bezeroen irakaskuntzari** dagokionez, erretiratutako euskal kirolariak kontratatuko ditugu, pertsonak eta ingurua ezagutu ditzaten. **Gasteizko instalazio** hoberenak erabiliko ditugu, denbora igaro ahala sortuko ditugu gure instalazio propioak. Gure bezeroak **12 eta 20 urte bitarteko pertsona** guztientzat eskuragarri izango da, **kuota desberdinak** egongo baitira bakoitzaren beharrak bete ahal izateko. Azkenik, **gure irudia** zabalduko dugu sare sozialen, webgunean eta gure entrenatzaileen bidez; izan ere, ezagunak direnez, horiek gure sustapenerako balio duten hainbat marka erakartzen dituzte.

